



BORTZIRIETARAKO
EUSKARAREN II.
PLAN ESTRATEGIKOA
2021-2024



BORTZIRIETAKO
EUSKARA MANKOMUNITATEA

2025eko jardueren plana

 **SARRERA**

2020an Bortziritako Euskararen II. Plan Estrategikoa landu zen herritarren parte hartzearekin, eta Batzorde Erabakitzailleak onespina eman zion 2020/11/30ean egindako bileran. Plan horren indarraldia 2021 eta 2024 arterako aurreikusia zen baina planteatzen dugu 2025. urtea horren luzapen bat edo trantsizio urtea izatea, heldu den urtean zehar III. Plan Estrategikoa prestatu ahal izateko.

Hortaz, 2025eko planean orain arteko jardueri jarraipena ematea eta egin gabe zeudenak aitzinera eramatea planteatzen dugu, eta bereziki baliabideak eta denbora eskaintzea 2021-2024 epeko planaren ebaluazioa egiteko, baita eta hurrengo planaren gaineko parte hartze prozesua aitzinera eramateko eta plana bera egiteko ere.

Horrez gain, mankomunitate bakarra sortzeko prozesua ere aitzinera doa, eta ikusi beharko da horrek ekarriko dituen aldaketek eta egokitzapenek ere zenbateko eragina izanen duten 2025eko planean nahiz hurrengo plan estrategikoan.

Estatutuetan jasotzen denez, beharrezkoa da Aholkularitza Batzordearen txostena Batzorde Erabakitzailleak plana eta aurrekontua onartu ahal izateko. Batzorde Erabakitzailleko ordezkariekin gaia bi alditan landuko da. Lehenik lan bilera bat egingen da, plana eta aurrekontua aurkezteko eta eztabaidatzeko. Eta bigarrenik Batzorde Erabakitzaillearen ohiko bileran landuko da gaia, egoki ikusiz gero bi dokumentuei onespina emateko; bilera hori 2024/11/07rako dago aurreikusia.

Arantzan, 2024ko urriaren 22an
Euskara teknikariak
Urko Ikardo Enparan eta Patri Arburua Etxeberria

 **JARDUERAK**
**Ildoa: HAUR-GAZTETXOEN (<16 URTE) SOZIALIZAZIOA**

Arloa: ETXEA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Familien motibazioa elikatzea euskarari buruzko hausnarketa egin dezaten, etxean euskararen presentzia ahalik eta handiena izan dadin eta jarrera aktiboa izan dezaten haurrak euskaraz sozializatzeko neurriak hartzerakoan (zaintzaileak, eskola, aisialdia, etxeko giroa...).	<ol style="list-style-type: none"> 1. Haur jaioberriak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurrak euskaraz sozializatzearen eta bereziki etxean euskarak ahalik eta presentzia handiena izatearen garrantziaren inguruan: “Ongi etorri, jaioberri!” liburuxkaren banaketa familia guziei. 2026an materiala berritzea aurreikusten da eta aitzinetik teknikarien sareak auditoretza bat kontratatuko du, arrazializazioaren ikuspegitik irudiak nahiz testuak aztertzeko. 2. Haurrak eskolatu berritan eskolak eta familiak beren sozializazio prozesuan betetzen duten funtzioei buruzko mezuak eta euskarriak (idatzizko euskarriak, geletako bilerak...) sortu eta 3 urteko haurrak dituzten familiei helarazi: “Familia eta eskola norabide berean” liburuxkaren eta ERA berendu poltsen banaketa. 3. Euskaraz ez dakiten gurasoei hitzaldiak, tailerrak, baliabideak... eskaini haurra euskaraz sozializatzeko prozesuan bete dezaketen funtzioaz eta etxean euskarak presentzia ahalik eta handiena izatearen garrantziaz: Dindaia Fundazioarekin gurasoentzako tailerrak jolasen inguruan. 4. Gurasoen hizkuntza ohituretan eragiteko tailerrak antolatu, bereziki UEMAREN HEDATU programaren bitartez: “Ispiluari begira” tailerra eskaini ikastetxeen bitartez. 5. Teknikarien sareak kudeatzean duen era.eus webgunea elikatu eta edukiak zabaldu. 6. Haurrekin erabiltzeko euskarazko kantu, jolas, formula eta antzeko baliabideak eskaini: “Irria” aldizkariaren hiru hilabeteko harpidetza 2 urteko haurren familiei. 	
Arloa: ESKOLA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskarazko murgiltze ereduaren unibertsalizazioa, bereziki kanpotik etorritako familien artean.	<ol style="list-style-type: none"> 7. 0-3 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, euskarazko murgiltze eredu hau hauta dezaten aholkatuz: D ereduaren aldeko kanpaina Beran. Bertzalde, teknikarien sareak 2023an egindako ikerketa oinarri (“Nafarroako biztanleriaren bilakaera eta D ereduaren irudiari buruzko ikerketa txostena”, Aztiker), Pilar Kaltzadarekin landuko da “3D+ Nafarroan D ereduko hezkuntza matrikulak ugaritzeko proiektua”, sareko kideekin eta diziplina arteko eragileekin elkarlanean. 	

Ikasleen euskararekiko jarrera aktibatzea.	8. Hezkuntzaren maila guzietan ikasleei baliabideak eta formakuntza eskaini, hizkuntza jarreraren inguruan eta zehazki arnasguneen garrantziaren inguruan (UEMAren HEDATU programa).
Ikastetxeekiko elkarlana areagotzea eta sistematizatzea.	12. Hezkuntza arloko eragileekin mahai teknikoak (H.eus Mahaia): jarraipena eman. 13. Ikasleek euskaraz sozializatzeko dituzten hutsuneak aztertu eta baliabide egokiak erabaki: irakasleen formakuntza bertako hizkeraren gainean eta aplikazioa eskolan (H.eus Mahaia). 14. Ikastetxeen hizkuntza planetan laguntza teknikoak eskaini eta hizkuntza irizpideak landu (H.eus Mahaia).

Arloa: AISIALDIA, KULTURA, KIROLA ETA LAGUNARTEA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Familiak haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantziaz ohartaraztea.	15. 5 urteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantzia azalduz: “Eta eskolatik kanpo, zer?”. Egitasmoaren kudeaketa teknikarien sarean (Patri, Aisialdi Lantaldea).	
Haur eta gaztetxoentzako euskarazko aisialdi eta kultur eskaintzaren berri ematea.	17. Euskarazko Produktuen Katalogoa banatu. Egitasmoaren kudeaketa teknikarien sarean (Patri, Aisialdi Lantaldea). 18. Euskarazko udaleku itxien berri eman. Egitasmoaren kudeaketa teknikarien sarean (Patri, Aisialdi Lantaldea). 19. Pauso eta Salto udalekuak (UEMA) sustatu. 20. Teknikarien sareak kudeatzen duen era.eus webguneko eskualdeko kultur eta aisialdi agenda elikatu eta edukiak zabaldu.	
Haur-gaztetxoei oporraldirako euskarazko eskaintza egitea.	21. Udaleku irekiak antolatu: zerbitzuaren esleipena eta 2025eko edizioaren antolaketa. 21. Mugaldeko Udalekua: udaleku ibiltariaren bigarren edizioa antolatu, Oiartzungo Udalarekin eta Sarako nahiz Urruñako Herriko Etxeekin elkarlanean. Euroeskualdeak diruz lagunduko duen jarduera izanik, dirulaguntza espediente hori tramitatu behar da.	
Haur-gaztetxoen aisialdian eta kirol jardueretan aritzen diren arduradunen euskararekiko jarrera aktibatzea.	22. Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza teknikoak antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materiala eta gainerako baliabideak), hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan, UEMArekin elkarlanean.	
Haur eta gaztetxoen euskarazko kultur sormena bultzatzea eta prestigiatzea, kontsumoa bultzatzea...	26. “Irakurriz gozatu” egitasmoan parte hartu.	
Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako ikasleen euskararako ibilbidea erraztea eta laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.	27. Eskoletan guraso tutore eta harreragileen sarea sortu, kanpotik etorritako familiei laguntzeko. Esperientzia pilotua: ikasle eta familia etorri berrientzako harrera protokoloa (H.eus Mahaiaren bidez). 29. Euskara indartzea behar duten haurrentzako (bereziki etorri berriak) egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta eskola indartzea uztartuz: <i>Solasean</i> antolatu eta <i>Euskaraz Kilika</i> sustatu.	



Ildoa: HIZTUN BERRIAK

Arloa: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Herritarren artean euskararen ezagutza handitzeko (herritar gehiagok euskara ikasteko), euskalduntze-alfabetatzea prestigiatzea eta sustatzea.	32. Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko urteroko matrikulazio eta sentsibilizazio kanpaina, motibazio praktikoetan eta identitarioetan oinarrituta, eta mendialdeko euskara zerbitzuekin elkarlanean.	
Euskalduntzeko eta alfabetatzeko eskaintzaren kalitatea eta dibertsifikazioa laguntzea.	35. Ikaste prozesuetan euskalkidunen presentzia areagotu, euskalkidunak eta euskara ikasleak harreman zuzenean jarriz (euskalkia eta haien jakintza, usadioak, etab. transmititu).	
Euskalduntze-alfabetatzea unibertsalizatzea eta herritar ororen eskura egotea euskara ikasteko aukera. Giza talderik ez diskriminatzea euskara ikasteko eskubideari dagokionez.	37. Euskara ikasten ari direnei dirulaguntza eman.	
Bortzirietako euskalduntze-alfabetatzeko antolamendua hobetzea; Euskaltegia laguntzea.	39. Bortzirietako Euskaltegiarekin koordinazio gune iraunkorra. 40. Bortzirietako Euskaltegiari dirulaguntza eman.	
Arloa: TRANTSIZIOA IKASTETIK ERABILTZERA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskara ikasten ari direnei erabilerara jauzia egiten laguntzea eta euskaldunen sarea trinkotzea.	42. Euskalduntze prozesuan daudenei erabilerara jauzia egiteko bide eman: Solaslaguna, Mintzodromoa eta mintzapraktika egitasmoak. 43. Elaide.eus garatu, Nafarroako euskara zerbitzuok elkarlanean sortutako webgunea, euskara ikasleak motibatu, eta erabilerarako jauzia emateko baliabideak eskuratzeko. Egitasmoaren kudeaketa teknikarien sarean (Urko, Elaide Lantaldea).	
Arloa: KANPOTIK ESKUALDERA ETORRITAKOAK		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako erdaldunak euskarara erakartzea eta euskararako ibilbidea erraztea	44. Harremanak euskaraz sustatzeko egitasmoa, euskara ikastaro berezituak (Euskara +, lan arlokoak), mintzapraktika esperientzia bereziak, etab.	



Ildoa: GIZARTE ERABILERA

Arloa: AKTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Herritarrak aktibatzea, ahalduntzea eta eraldaketaren motore bilakatzea, euskararen erabilera handitzeko, hizkuntza ohiturak astintzeko eta euskara gizarte bizitzako esparru gehiagotara heltzeko.	45. Herritarrek Euskaraldian parte har dezaten lortu; Euskaraldiko antolaketa lagundu, gizarte mugimenduekin elkarlanean.	
Gizarte eragileak eta herritarrak euskararen egoeraz jabetzea, arnaguneen funtzioaz eta garrantziaz, eta beren hizkuntza ohiturez gogoeta egitea.	46. UEMArekin baitan eta UEMArekin elkarlanean arnaguneak balorean jartzeko herritarrentzako saioak eta euskarriak. 47. “Arnasa gara” kanpainari jarraipena egitea. 48. Hizkuntza praktikei buruzko gogoeta eta sentsibilizazioa etorri berriei dagokienez (BHHP1). UEMArekin “Egin nirekin ere euskaraz” kanpainarekin landuko dugu.	
Bortziritako euskararen berreskurapen prozesua jasotzea eta herritarrei horren berri ematea.	51. Bortziritako euskararen berreskurapen prozesuari buruzko ikus-entzunezkoa zabaldu: aurkezpenak eta emanaldiak antolatu herrietan, eta materiala webgunean jarri. Materialaren lagapena Badihardugu Elkarteari (ahotsak.eus) eta Euskarabideari Nafarroako Euskararen Mediatekarako (mediateka.eus).	

Arloa: TOKIKO ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Bortziritako toki entitateetan euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izatea.	54. UEMArekin koordinatu eta elkarlanean ari, udal erabilera planen gauzapenean eta jarraipenean. 56. Udalen menpeko erakundeetan (kiroldegiak, musika eskolak, zahar etxeak...) erabilera plan berezituak egin eta hizkuntza irizpideak landu, UEMArekin elkarlanean: Lesakako Andra Mari Zaharren Egoitzan langileen formakuntza. 57. Bortziritako mankomunitate berria egituratzen denean hizkuntza irizpideak eta plana landu. 58. Hizkuntza eskakizunen jarraipena egin, eta udal administrazioetan sartzeko euskara probak bideratu.	

¹ Bortziritako Hizkuntza Harrera Planean jasotzen da.

	59. Bortzirietako udal-mankomunitateetako langileen euskarazko prestakuntzarekin jarraitu: Nafarroako Gobernuak toki entitateetako langileentzat antolatzen dituen ikastaroen berri eman.
Arnasguneen zaintza.	60. Udaletan eta udalez gaindi egiten diren hirigintza proiektuetan hizkuntzaren eragina neurtu eta neurri zuzentzaileak proposatu (ELE tresnaren aplikazioa UEMArekin elkarlanean).

Arloa: ARLO SOZIOEKONOMIKOA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskara laneko hizkuntza izan dadin eragitea, eta lan mundua nagusiki euskaraz izan dadin lortzeko datozen urteotako estrategia bateratuan parte hartzea.	61. Komunikazio estrategia finkatu eta koordinatu bertzelako eragileekin (UEMA, Euskarabidea, Kontseilua, Eusko Jaurlaritza, etab.). <ul style="list-style-type: none"> • Bortzirietako enpresen foroari segida eman. • Eskualde mailako lan munduko egitasmoen elkarlanean parte hartu. 63. Lanbide heziketaren eta lan munduaren arteko uztardura sustatu, euskaratik. 64. Eskualdeko garapen eragileekin lanketa proiektu berrietan euskara aintzat hartzeko.	
Enpresa handietan euskararen presentzia areagotzea.	65. Lantegietan langileen arteko erabilera informala sustatu Euskaraldiaren bidez.	
Bortzirietako zenbait enpresatan euskararen erabilera areagotzeko planak abiatzea, bide hori urratzen hastea.	67. Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzeko dirulaguntzen berri eman eta aholkularitza eskaini. <ul style="list-style-type: none"> • Euskarabideko dirulaguntzaren berri eman eta enpresei eskaerak bideratzen lagundu. • Enpresetako langileentzat itzultzaile automatikoei buruzko saioa antolatu. 68. Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzea sustatu.	
Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan herritarrei euskarazko arreta bermatzea eta erabilera areagotzea.	69. Ostalaritza eta merkataritza establezimendu berriak ireki aitzinetik errotuluak, paisaia linguistikoa, euskaraz lan egiteko baliabideak eta irizpideak eskaini, udalekin elkarlanean. Oro har, establezimendu guztiei errotuluak, paisaia linguistikoa eta euskaraz lan egiteko baliabideak zein laguntza eskaini. <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntza. • "Bai Euskarari" ziurtagiridunei dirulaguntza eman. 70. Ostalaritza eta merkataritza arloko eragileak aktibatu, bezero eta erabiltzaileekiko harremanean lehen hitza euskaraz izan dadin. Euskaraldiarekin landuko dugu. 71. "Herrian erosi, euskaraz erosi" egitasmoa garatu, material eta zerbitzu eskaintza zabaldu. Euskarabidearekin koordinatu <i>Euskaraz barra-barra</i> egitasmoa sustatzen badute.	
Bortzirietara datozen bisitari eta turistak euskarara hurbiltzea eta euskara prestigiatzea.	76. Bisitari eta turistei euskararen berri emanen dieten euskarriak sortu eta zabaldu: "Ongi etorri, hemen euskaraz bizi gara" zabaldu (Baztan-Malerreka-Bortziriak).	

Arloa: INGURUNE DIGITALA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Ingurune digitalean eta teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzea eta ahalbidetzea.	78. Herritarrek eta entitateek programa informatikoak, softwareak, aplikazio informatikoak eta sare sozialak euskaraz erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio kanpainak. 79. Euskarazko ingurune digitalaren erabileran trebatzeko ikastaro eta tailerrak eskaini. Sarean euskaraz programarekin landuko dugu. 80. Merkatari, elkarte, enpresa, norbanako, etab.en webgune eta aplikazio informatikoak euskaraz egon daitezen aholkularitza (eta dirulaguntzak). Jarduera honek 69. jarduerarekin bat egiten du.	
Arloa: TOKIKO KOMUNIKABIDEAK		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Eskualdeko komunikabideak babestea.	81. Eskualdeko komunikabideentzako dirulaguntzak kudeatu.	
Arloa: KULTURA		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskarazko kultur eskaintza zabal eta askotarikoa ziurtatzea, kultur eragileekin harremanetan.	82. Mankomunitateak herrietan antolatzen dituen kultur ekitaldiak bertako eragileen esku uzteko ibilbidea egin: herri txikietako kultur ekitaldien antolaketan lagundu.	
Euskarazko kulturaren sorkuntza, transmisioa eta kontsumoa sustatzea, kulturgintza eta hizkuntza sozializazioarekin lotuta.	87. Bortziritako Bertso Eskolaren jarduna sustatu eta babestu. 89. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatu liburuen gomendioak eginez, tokiko komunikabideekin eta liburutegiekin elkarlanean: <i>Literatura-geraldiak</i> ekimena Ipar-Mendebaldeko euskara zerbitzuekin elkarlanean. 90. Euskal musikaren gomendioak egin, tokiko komunikabideekin eta musikariekin elkarlanean: <i>Musikaz Blai</i> ekimenari jarraipena elaide.eus webgunetik.	
Arloa: AISIALDIA ETA KIROLAK		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Euskarazko jarduera ludikoaren eskaintza handitzea.	94. Helduentzako aisialdi eskaintzaren azterketa egin: Udaltop tresnarekin, Euskarabidearekin elkarlanean.	
Aisialdian aritzen diren arduradunen euskararekiko jarrera aktibatzea.	99. Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza tekniko antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materiala eta gainerako baliabideak), hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan.	

Arloa: GAZTEEN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA ETA AKTIBAZIOA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Gazteen artean kultur sorkuntza eta euskarazko kulturaren murgiltzea sustatzea.	102. "Irakurritz gozatu" egitasmoan parte hartu.	

Arloa: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Eskualdeko hizkuntza eta kultura aniztasuna aitortzea, eta aniztasun horrekiko jarrera positiboa bultzatzea (BHHP).	104. Migrazio eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak, hitzaldiak, mahai-inguruak, kanpainak, eta etab.	

Arloa: HARRERA LINGUISTIKOA		Lehentasuna: ALTUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Etorri berriei ongi etorria ematea eta haiekin euskararen inguruko informazioa partekatzea, Bortzirriak arnagunea dela oinarri hartuta (BHHP).	106. Erroldatzen den herritar orori euskararen inguruko informazioa, euskarri ezberdinak erabilia, zehazki euskara ikasteko baliabideen berri emanez. 108. Etorri berriei ongi etorria eta informazioa emateko saioa, herriko etxean, berriki erroldatutako herritarrek gonbidatuta. 109. Bisita gidatua herria ezagutzeko: aisialdia, bizitza soziala eta baliabideak.	
Hizkuntza harrera planaren koordinazioa lantzea (BHHP). Herritarren eta udal agintarien arteko elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte hartzearen kultura sustatzea (BHHP).	112. Hizkuntza harrera planaren koordinazioa, maila instituzionalean, eta harrera sareari dagokionez. Jarduera hau, eta, oro har, hizkuntza eta kultur aniztasunari zein harrera linguistikoiari dagokionak Bortzirietako Aniztasun Taldearen bidez landuko ditugu.	

Arloa: HIZKUNTZA ESKUBIDEAK		Lehentasuna: ERTAINA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Tokiko administrazioetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.	113. Herritarren eskaerak bideratu eta erantzun egokia eman; behar diren aldaketak egin hizkuntza eskubideak bermatzeko.	
Gainerako administrazioek euskaraz egin dezaten, eta batez ere herritarren hizkuntza eskubideak babesteko eragitea.	114. Herritarrek administrazioarekin harremanetan euskaraz aritzeko eskubidea bermatzeko lanean eta elkarlanean segitu, UEMArekin eta Nafarroako gainerako euskara zerbitzuekin. 116. Bera eta Lesakako liburutegietako arduradunen lanpostuetan HE ezarriko dela bermatu.	
Osasun zerbitzuetan euskarazko arreta bermatzeko aurrerapausoak ematea, bereziki Bortzirietakoan.	119. Osasun zentroan euskararen kudeaketa plana sustatu. Osasun Departamentuaren hizkuntza planaren baitan, Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean.	

Arloa: IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Egoera soziolinguistikoaren ezagutzan aitzinera egitea, beharrak eta lehentasunak egoki diagnostikatzeko.	122. Bortziritako ikastetxeetako matrikulazio datuak bildu eta bilakaera aztertu. 123. Bortziritako euskaltegiko datuak bildu eta bilakaera aztertu.	
Bortziritako errealitate soziolinguistikoaren zabalkundea eta kontsultak erantzutea.	132. Herritar eta eragileen kontsultei erantzun.	



Ildoa: CORPUSA

Arloa: TOKIKO HIZKERA, TOPONIMIA ETA OIKONIMIA		Lehentasuna: BAXUA
HELBURUAK	JARDUERAK	
Bortziritako hizkeraren ezaugarriak ikertzea eta ezagutzera ematea.	134. Bortziritako hizkeraren ezaugarri nagusiak biltzen dituen argitalpen dibulгатiboa prestatu eta herritarrentzako oinarritzko formakuntza antolatu.	



Ildoa: KUDEAKETA

Arloa: GIZA BALIABIDEAK ETA TALDE TEKNIKOA	
HELBURUAK	JARDUERAK
Langileen lan baldintzak eta lanpostuen balorazio egokiak bermatzea.	142. Lan osasuneko prebentzio plana eguneratu. 143. Langileen osasun azterketak egin. 144. Telelanerako egokitzapen teknikoak egin eta bitartekoak zehaztu.
Arloa: PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	
HELBURUAK	JARDUERAK
Plan estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.	147. Plangintzaldiaren amaieran, plan estrategikoaren ebaluazioa egin. 148. Hurrengo plangintzaldirako gogoeta prozesua egin.
Urteko kudeaketa plana egitea eta ebaluatzea.	149. Urteko jardueren plana eta aurrekontua prestatu. 150. Urteko ebaluazioa prestatu eta aurkeztu.
Arloa: ERAKUNDEAREN EGITURA (elkarrekin komentatzeko)	
HELBURUAK	JARDUERAK
Mankomunitatearen egitura eta funtzionamendua berritzea.	153. Nafarroako mapa lokal berriaren gauzapenean eta Baztan-Bidasoa eskualdeko egituraren sorreran parte hartu. Jarduera hau horrela jaso zen 2020an, plana egiterakoan, baina gaur egun hartu duen bidea hartuta, Bortzirietao mankomunitate bakarra sortzeko prozesuarekin lotuko litzateke.
Mankomunitatearen egoitza berria sortzea (toki irisgarri eta ikusgarri batera eramanda), euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren elkargune izanen dena (helburu hau aktibatuko dugu gogoeta prozesuan urrats hori egiteko adostasuna bada).	156. Egoitza berria egin eta euskara zerbitzua bertara eraman. Mankomunitate bakarraren sorrerarekin euskara zerbitzua non kokatzen den landu behar da. 157. Euskararen espazioa abiatu eta kudeatu (aitzineko jarduerarekin lotua).
Arloa: EUSKALGINTZAREKIN ELKARLANA	
HELBURUAK	JARDUERAK
Euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren arteko elkarlan eta koordinazioan sakontzea.	159. Euskalgintza sozialaren balizko antolamendu berriarekin elkarlan formulak adostu. Bor-bor mugimenduarekin elkarlan formulak aztertu.

	<p>160. Bortzirietako era guztietako eragileekin elkarlanean aritu, bereziki euskalgintzakoekin (euskaltegia, tokiko hedabideak, ikastetxeeak, bertso eskola, etab.); elkarlan horretan sakondu.</p> <p>161. Euskal Herrian hizkuntza normalizazioan ari diren eragileekin elkarlanean aritu, bereziki UEMArekin eta Nafarroako euskara zerbitzuen sarearekin. Sareari dagokionez, 2025-2028 urteetarako plan estrategikoa egin berri du. Sarearen antolamenduetarekin lotuta, lau lantalde izanen dira. Urkok proiektuen lantaldean parte hartuko du eta Patrik kanpo harremanen eta komunikazioaren lantaldean. Euskara biziberritzearekin lotutako 7 egitasmo landuko dira; Patri haurren aisialdiarekin lotutako lantaldean arituko da eta Urko, berriz, Elaide webgunearekin lotutakoan. Ohiko sare bilerez gainera, lantalde horietan ere parte hartuko dute.</p>
Euskalgintza babestea, estrategikoak diren sektoreak diruz lagunduta.	163. Dirulaguntzak kudeatu: arloka aipatu direnez gainera (komunikabideak, euskaltegia, bertsolaritza...), euskalgintzan ari diren taldeei ematen zaizkien dirulaguntzak.

Arloa: IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA	
HELBURUAK	JARDUERAK
Etengabeko formakuntza.	<p>164. Soziolinguistikari eta hizkuntza plangintzari dagokion trebakuntza jaso.</p> <p>165. Tresna teknologiko berriei dagokien trebakuntza jaso.</p> <p>166. Komunikazioari dagokion trebakuntza jaso.</p> <p>167. Mankomunitatearen zereginetarako sortzen diren beharrei erantzuteko trebakuntza (adibidez, prozedura administratiboa, datuen babesak, etab) jaso.</p> <p>168. Zeharlerroko gaiei dagokien trebakuntza jaso: generoa, ingurumena, etab.</p>
Administrazio elektronikoa abian jartzea	169. Administrazio elektronikoa ezarri, mankomunitate berriaren sorrerak ekarriko dituen egokitzapenak aintzat hartuta.

Arloa: KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA	
HELBURUAK	JARDUERAK
Mankomunitatearen kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa.	<p>170. Bulegoa, tresnak, altzariak, biltegia... kudeaketa eta mantenu egokia bermatu.</p> <p>171. Aurrekontuak, kontuak eta diruzaintza kudeatu.</p>

Arloa: KOMUNIKAZIOA	
HELBURUAK	JARDUERAK
Mankomunitatearen helburuetan aitzinera egiteko etengabe komunikatzea (komunikazioa, zabalkundea eta ikusgarritasuna).	<p>172. Mankomunitatearen komunikazio plana osatu eta gauzatu.</p> <p>173. Webgunearen egitura eta edukiak eguneratu eta elikatu.</p>